

HITZ BITAN

EZBEHARRAK

Bi udaltzain eta ertzain bat arinki zaurituak Getxoko etxebizitza baten izandako sutean

Udaltzain bi eta ertzain bat zauri arinekin irten ziren Getxon atzo izandako sute batetik. Suteak ke izugarria sortu bazuen ere, ez zuen kalte larriarik sortu. Kale Nagusiko 33. zenbakiko etxebizitza batean sortu zen sutea, eguerdiko 13:45 aldera. Ertzaintzak emandako datuen arabera, sukaldean piztu zen sua, ke-erazgailuak su hartu zuenean.

Sutea piztu eta laster, Ertzaintza eta Getxoko Udaltzainzako patruila bana bertaratu ziren, eta handik minutu batzuetara suhiltzaileak heldu ziren. Sutea itzali eta etxebizitza husteko lanetan parte hartu zuten Getxoko udaltzain bik eta ertzain batetik arnasbideko arazoak izan zituzten kea dela irensteagatik. Hirurak herrian dagoen istripuetako mutualitatera eraman zituzten, eta bertan beharrezko zainketak jaso ostean, senda-agiria eman zieten hirurei.

Suhiltzaileek ez zuten aparteko arazorik izan sutea itzaltzeko. Kearen eta suhiltzaileek sutea itzaltzeko erabili zuten uraren ondorioz, etxebizitzak kalte garrantzitsuak jasan zituen.



JAVIER SESMA

Etorkinak ilaran, Espainiako Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzaren aurrean.

SOS ARRAZAKERIA. Sentsibilizazioa behar dela dio

Arrazakeriak arazo larria izaten jarraitzen duela salatu dute urteroko txostenean

Ainhua Gutierrez | GASTEIZ

Espainiako Gobernuak «gaitasunik eza» erakutsi du immigrazioaren inguruan sorturiko arazoetan, eta administrazioek «kontrakotasunez» jokatu dute gai iskanbilatsu honen inguruan. Hori nabarmendu zuen SOS Arrazakeriako Fernando Garciak, atzo goizean, Gasteizen izandako prentsaurrekoan.

SOS Arrazakeria taldeak arrazakeriari buruzko 2001. ur-

terko txostena aurkeztu du. Lan horretan Hego Euskal Herria eta Espainia hartzen dituzten kontuan. Aurten bi ardatz izan ditu: El Ejidoko gertaerak eta Atzeritarren Legea.

Euskal Herrian, Espainiarekin alderatuz, egoera hobea da; hau da, Euskal Herriko bizi kalitatea «ona» da eta etorkinentzako leku «aproposa» da.

Hala ere, Barakaldoko (Bizkaia) ikastetxe batean guraso batzuek bi ijito han sar zitezen

nahi ez izateak zeresan handia eman du. SOS Arrazakeria erakundeak bozeramaileak «gizarte bazterketa antolatutzat» jo du. Izan ere, Hego Euskal Herrian antzerako beste kasu batzuk ere izan direla esan zuen.

Bestalde, arrazakeriaren aurkako erakundeak eman dituen datuen arabera, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoan 18.822 atzeritar daude eta haien paperak legeztatzeke egin dituzten eskaerek ez dute helburua lortu.

Dena den, immigrazioa hazten ari den gertakaria da eta Euskal Herria ere ari da sumatzen.

Arrazakeriari buruzko informazio gehiago jasotzeko, salgai dago jadanik aipatutako txostena.

KIROLA

la gipuzkoarren %80k egiten du kirola astean birritan edo hirutan, batez ere, osasuna zaintzeko

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Sailak eta EHUK elkarlanean egin duten lan baten arabera, ia gipuzkoarren %80k egiten du kirola maiztasunez —astean birritan edo hirutan—. Donostia, Bidasoa, Tolosa, Goierri, Urola eta Deba inguruneetako 15 urtetik gorako 400 galdetuetako %53k kirola egiteko aipatu duten arrazoia osasuna zaintzea da. Bestalde, gazteenek «ondo pasatzeko» egiten dute la adierazi dute. Gizonezkoak dira «afizio» hau dutenen artean gehienak; eta adinari begira, berriz, urteak aurrera doazen heinean kirola egiteko zaletasuna gutxituz doa. Batez ere, ibiltzea, mendira joatea, bizikletan ibiltzea eta igeri egitea dira galdekaturik gehien aipatu dituzten kirolak. Kirola egiteari uzteko arrazoi nagusiak, aldiz, aisialdirako denbora eskasa izatea aipatu dute (%34k). Balia-bideen eta leku aproposen gabezia, ordea, ezin izan dute aitzakiatzat jarri, ia %80k bere herrian bertan egin baitezake gustukoa duen kirola.

ISTRIPUA

Lagun bat hil eta beste bat zauritu da Mendavian gertaturiko auto istripu batean

Atzo arratsaldean Mendaviako errepidean auto istripu bat jazo zen, eta bertan, Eduardo Puy Perezek, 38 urteko Monzoneko (Hueska) gazteak, bizia galdu zuen. Istripua NA-134 errepideko 86.200. kilometroan gertatu zen; han, LO-6276-P matrikuladun Mercedes batek eta B-9067-XD matrikuladun Peugeot batek elkar jo zuten. Mercedeseko gidaria unean hil zen; bigarren autokoa, aldiz, zauritu egin zen.

ATXILOKETAK

Hiru gazte atxilotu dituzte Kantabrian Barakaldoko gizon bat jipoitzeagatik

Guardia Zibilak hiru gazte atxilotu zituen pasa den asteartean Castro Urdialesen (Kantabria), Barakaldoko gizon bat jipoitzeagatik. Ezbeharrak iragan larunbatean jazo zen. Jipoitua alde egiten saiatu zen, baina erasotzaileek jarraitu eta ostikoz zein ukabilkadez josi zuten. Gizona bertako larrialdi zerbitzuetara eraman zuten, ezker eskua hautsita. Azkenik, asteartean, 19 eta 20 urteko hiru gazte atxilotu zituzten, ustezko erasotzaile legez.

Ertzaintzak asteartean Ategorrietan autoa gurutzaturik utzi zuen gaztea atxilotu du

Ertzainak L.H.U. 24 urteko gaztea atxilotu zuen atzo, Donostian, bezperan Ategorrietako bide batean autoa gurutzaturik utzi eta izugarriko auto-ilara sortzeagatik. Gazteak autoa bide erdian utzi zuen. 20:00ak inguruan, eta Ertzainak lehergailu bat zeramala uste izan zuen. Trafikoaren geldialdi luze baten ondoren, autoa utzi besterik ez zuela egin jakin zuten. Gazteak delitu arrerariak dauzka.

DIRU LAGUNTZAK

Jaurlaritzak 200 milioi pezeta eman dizkie kontsumitzaile elkarte eta informazio bulegoei

Eusko Jaurlaritzak 200 milioi pezetako diru laguntzak bideratu ditu kontsumitzaile elkarte eta informazio bulegoetarako. Laguntza hauen helburua hirukoitza da: elkarte hauen bulego berrietarako eta hauen mantentzerako; antolatzen dituzten informazio eta heziketa ekintzak bultzatzeko; eta kontsumitzaile elkartearen kasuan, elkartegintza bultzatzeko.

OSASUNA

Zigarro batek ehun botila oliba-pats oliok bezainbesteko bentzopireno dauka

Eugenio de la Cruz tabakis-moan adituak adierazi duenez, zigarro batek duen bentzopireno kopurua, ehun botila oliba-pats oliok dutenaren parekoa da. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak jada olio honetako 80.000 litro erretiratu ditu, badaezpada dako neurri gisa.

Egunkaria

kontzertuan
SU TA GAR

('Su Ta Gar Jo Ta Ke' zuzeneko lan berria aurkezten)

uztailak 6 ostirala
AMOROTO
(23:00tan pilotalekuan)

Harremanetarako: MATXITXA 948 18 09 18 edo www.sutagar.com